Iragarki honen bidez epatu egiten da auzian interesa izan dezakeen oro, autoetara bertaratu eta parte har dezan. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Alegría-Dulantzi, 2007ko maiatzaren 24a.– Alkatea, JOSÉ LUIS MARTÍNEZ ELEJALDE.

## ALEGRÍA-DULANTZI

**3871**

**1/2007 kreditu gehigarriaren espedientearen hasierako onarpena.**

Alkateak, 2007ko maiatzaren 17ko Ebazpenaren bidez, hasierako onarpena ematea erabaki zuen 1/2007 kreditu gehigarriaren espedienteari.

3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako espediente hori hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Esandako epean erreklamaziorik aurkeztu ez bada, kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartuko da.

Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da aditzera.

Alegría-Dulantzi, 2007ko maiatzaren 18a.– Alkatea, JOSÉ LUIS MARTÍNEZ ELEJALDE.

## AIARA

**3855**

**Aiarako Udalaren larrialdiko etxebizitzaren funtzionamendu eta erabilera xedatzen dituen barne arautegia.**

ZIOEN ADIERAZPENA

Aiarako Udala jakitun da hainbat pertsona eta/edo familia babesik gabeko egoeran daudela, diren direlako arrazoiak tarteko, etxebizitza utzi behar izateagatik; horiek horrela, larrialdiko etxebizitza zerbitzua arautu nahi du.

Udalak larrialdiko etxebizitzaren funtzionamenduari buruzko barne arautegia egin eta kudeatuko du. Eta hori egingo du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25. artikuluak gizarte zerbitzuak emateko eta gizarte sustapen eta gizarteratze lanetarako ematen dizkion eskumenak baliatuz.

XEDEA

1. artikulua. Arautegi honen helburua da udalaren larrialdiko etxebizitzara sartzeko eta hura erabiltzeko baldintza eta betekizunak arautzea. Etxebizitza udalak kudeatuko du, eta ondoren adieraziko diren egoeraren baten dauden pertsonei eta/edo familiei babesa emateko erabiliko da; hain zuzen ere, diren direlako arrazoiak tarteko, etxebizitzarik gabe geratu eta berehalako laguntza premia duten pertsona eta/edo familiei babesa emateko.

ETXEBIZITZAN SARTZEKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZAK

2. artikulua.- Ondoren zehazten diren betekizunak betetzen dituzten pertsonak eta/edo familia unitateak sartu ahal izango dira larrialdiko etxebizitzan:

1.- Adinduna edo adingabe emantzipatua izatea, eta Aiarako biztanleen erroldan eskabidea egin baino urtebete lehenago inskribatuta egotea.

2.- Ondorengo arrazoi hauek oinarri babes premian egotea:

• Udalak etxebizitzaren premia duten pertsona edo pertsonen ohiko etxebizitza berehalako aurri egoeran deklaratu izana.

Se advierte que la publicación de este anuncio sirve de emplazamiento a cuantos aparezcan interesados en el mismo que pueden comparecer y personarse en los autos en el plazo de nueve días, a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En Alegría-Dulantzi, a 24 de Mayo de 2.007.– El Alcalde, JOSÉ LUIS MARTÍNEZ ELEJALDE.

## ALEGRÍA-DULANTZI

**3871**

**Aprobación Inicial del Expediente de Crédito Adicional nº 1/2007.**

Por Resolución de la Alcaldía, de fecha 17 de mayo de 2.007, se acordó la aprobación inicial del Expediente de Crédito Adicional nº 1/2007.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 3/2004, dicho expediente queda expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente, también hábil, a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno.

El Expediente de Crédito Adicional se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentasen reclamaciones.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos oportunos.

En Alegría-Dulantzi, a 18 de mayo de 2.007.– El Alcalde, JOSÉ LUIS MARTÍNEZ ELEJALDE.

## AYALA

**3855**

**Reglamento de régimen interior por el que se establecen las normas de funcionamiento, y utilización del piso de emergencia social del Ayuntamiento de Ayala.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Ayala, siendo consciente de la situación de indefensión y desamparo en que se encuentran las personas y/o familias que por determinadas causas se ven obligadas a abandonar su domicilio habitual, desea normativizar el funcionamiento del servicio de piso de emergencia.

Por lo que ha optado por elaborar un Reglamento de régimen interior del piso de emergencia que será gestionado por el Ayuntamiento. Todo ello en virtud de las facultades reconocidas en el articulo 25 de la ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local, para la prestación de servicios sociales, promoción y reinserción social.

OBJETO

Articulo 1. Es objeto del presente reglamento, la regulación de las condiciones y requisitos de acceso y régimen de uso del piso de emergencia social de titularidad municipal, que será gestionado por el Ayuntamiento y tiene por finalidad dar refugio a aquellas personas y/o familias que, se encuentren en las circunstancias que posteriormente se desarrollan y que por diversas causas, han quedado sin cobijo y requieren una ayuda inmediata.

REQUISITOS Y CONDICIONES PARA EL INGRESO

Artículo 2.-Tendrán acceso al ingreso en el piso de emergencia las personas y/o unidades familiares que acrediten cumplir los siguientes requisitos:

1.- Ser mayor de edad o menor emancipado, y figurar inscrito en el padrón de habitantes del municipio de Ayala, con una antelación de un año, a la fecha de formalización de la solicitud.

2.- Que se encuentren en situación de necesidad de cobijo inmediato a causa de:

• Declaración municipal de ruina inminente de la edificación que sirviera de domicilio habitual a la persona o personas necesitadas del piso.

• Tratu txar fisiko eta/edo psikikoak direla-eta, familiako hartu-eman txarrak egotea.

• Etxebizitzan ezbeharren bat gertatu izanagatik (sutea, uholdea…), etxebizitzarik gabe geratzea.

• Gizarte Ongizaterako Udal Batzordeak balioetsitako beste zenbait arrazoi berezi.

Edonola ere, aipatutako egoeraren batean egoteaz gain, familia unitateak ezin izango du diru-baliabiderik izan etxebizitza premia dela-eta beste etxebizitza batera joateko.

3.- Udal zerga guztiak ordainduta izatea, eta Aiarako Udalari beste ezer zor ez izatea.

3. artikulua.- Ezin izango da larrialdiko etxebizitzan 3 hilabete baino gehiago eman, eta beraz, epe hori bukatutakoan ezin izango da etxea gehiago erabili. Edonola ere, salbuespenen bat egon daiteke, eta behin kasua aztertu ondoren, etxebizitzaz gozatzeko epea luza daiteke, amaitu baino lehen. Horretarako, etxebizitzan denbora gehiago geratzeko premia egiaztatu beharko da, larrialdiko etxebizitzaren ardura duen gizarte langileak aldeko txostena egingo du, eta Gizarte Ongizaterako Batzordeak hori guztia baimenduko.

ONARPENERAKO PROZEDURA

4. artikulua.-

1.- Larrialdiko etxebizitzaren premia duen pertsonak edo familia unitateak udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan egin beharko du eskabidea, arautegi honetako eranskin ageri den adierazpenereduaren arabera; eta nahitaezkoa izango da interesduna 2. artikuluko egoeraren baten egotea.

Eskabidearekin batera arautegi honekin batera doan eranskinak jasotako agiriak aurkeztu behar izango dira; eta eskabidea presaz aurkezten bada, bost egun emango dira agiriok aurkezteko.

2.- Etxebizitzara sartzeko eskabidea jaso ondoren, zerbitzuaren ardura duen gizarte laguntzaileak nahitaezko txostena egin beharko du, eskatzaileen egoera balioesteko.

3.- Etxebizitzan inor ez badago, eta pertsona bik zein familia unitate bik batera etxebizitzan sartzeko eskatu badute, eta biek betetzen badituzte etxebizitza erabili ahal izateko baldintza guztiak, zeini eman jakiteko irizpideak ondorengo hauek izango dira:

a) Familia unitatearen errenta per capita. Hori kalkulatzeko etxebizitzan sartuko diren familia unitatearen kide guztien urteko diru-sarrerak hartuko dira kontuan, hau da, zerbitzurako eskabidearen aurreko urteko soldatek, pentsioek, korrituek, errentek eta abarrek eragindako dirua. Ondoren eragiketa hau egingo da: diru-sarreren kopurua zati eskatzailearen familia unitateko kide guztiak. Aparteko gastuak, behar bezala egiaztatutakoak, kenduko dira.

b) Pertsona kopurua (seme-alabak eta eskatzailearekin bizi eta zaintzeko premia duten senideak)

GIZARTE ONGIZATERAKO BATZORDEA.

5. artikulua.-

Gizarte Ongizaterako Batzordeak hautatuko ditu aurkeztutako eskabideak, baita horien gaineko erabakiak hartu ere, zerbitzuaren ardura duen gizarte langileak txostena egin ondoren.

6. artikulua.- Etxebizitzan sartzeko eskabideak aurkeztu ondoren, Gizarte Ongizaterako Batzordea lehenbailehen bilduko da, eta bilerarako deialdia batzordearen lehendakariak egingo du.

Gizarte langileak egindako txostena aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetarako Batzordeak behin-behineko erabakia hartuko du etxebizitzan sartzeko eskabidea dela-eta .

Gizarte Zerbitzuetarako Batzordeak, Gizarte Ongizaterako informazio Batzordearen bidez, udalbatzari erabaki guztien berri emango dio, berrets ditzan.

Udalbatzak Gizarte Ongizaterako Batzordeak emandako behin-behineko baimena berresten ez badu, erabiltzaileek etxebizitzatik alde egin beharko dute, gizarte langileak jakinarazi eta 24 orduko epean.

• Relaciones familiares insostenibles por la existencia de malos tratos físicos y/o psíquicos.

• Siniestro de la vivienda habitual (incendio, inundación, ...) motivo por el cual han quedado sin vivienda.

• Otros supuestos especiales valorados por la Comisión Municipal de Bienestar Social.

En todo caso, la concurrencia de cualquiera de estos motivos ha de ir unida a la efectiva falta de recursos económicos con los que la unidad familiar pudiera paliar de forma inmediata su necesidad de vivienda.

3.- Estar al corriente en el pago de tributos municipales, y no tener ninguna deuda impagada, por ningún concepto, con el Ayuntamiento de Ayala.

Articulo 3.- El plazo de estancia en el piso de emergencia no será superior a 3 meses, por lo que finalizado dicho plazo cesará automáticamente el derecho a la ocupación del piso. Sin perjuicio de que excepcionalmente, y tras la valoración de las circunstancias que concurran, pueda ampliarse el plazo, previamente a su vencimiento, en los supuestos en que, previa acreditación de la necesidad, se emita informe favorable por el/la trabajador/a Social responsable del servicio y autorizado por la Comisión de Bienestar Social.

PROCEDIMIENTO DE ADMISIÓN

Artículo 4.-

1.- La persona o unidad familiar necesitada del piso de emergencia deberá formalizar la solicitud en el Servicio Social de Base del Ayuntamiento, según declaración-modelo que figura como anexo al presente Reglamento, siendo imprescindible que la persona o personas se encuentren comprendidas en alguna de las circunstancias señaladas en el artículo 2.

Junto con la solicitud, o en caso de presentarse ésta con urgencia, en el plazo de 5 días, deberán presentar la documentación que se establece en el Anexo de este Reglamento.

2.- Recibida la demanda de ingreso, el/la Trabajador/a Social responsable del servicio realizará el informe preceptivo en el que valorará la situación personal de los/as solicitantes.

3.- Cuando la vivienda estuviese desocupada, y existiesen solicitudes de dos personas o unidades familiares, que cumplan en principio, los requisitos necesarios para ser beneficiarias del uso de la misma, los criterios que se tendrán en cuenta para priorizar la concesión del beneficio a una de ellas serán, los siguientes:

a) Renta per capita de la unidad familiar que vaya a convivir en la vivienda, para cuyo cálculo se tomarán como referencia los ingresos anuales totales de todos los miembros de la unidad familiar que vayan a ser alojados en la vivienda, procedentes de salarios, pensiones, intereses, rentas y cualesquiera otros, correspondientes al ejercicio económico anterior al de solicitud del servicio, dividiéndose por el número de personas que compongan la unidad familiar de la solicitante. Se deducirán los gastos extraordinarios, debidamente acreditados.

b) Número de personas (hijos, y demás parientes que convivan habitualmente con el solicitante y que dependan de sus cuidados).

COMISIÓN DE BIENESTAR SOCIAL

Artículo 5.-

La selección y resolución de las solicitudes presentadas se realizará por la Comisión de Bienestar Social, previo informe de el/la Trabajador/a Social responsable del servicio.

Artículo 6.-Presentada la solicitud de ingreso, la Comisión de Bienestar Social se reunirá a la mayor brevedad posible, y la convocatoria para la reunión la realizará el/la Presidente/a de dicha Comisión.

Visto el informe que presentará el/la Trabajador/a Social, y previa deliberación, la Comisión de Servicios Sociales resolverá provisionalmente sobre la solicitud de ingreso.

La Comisión de Servicios Sociales trasladará al Pleno, a través de la Comisión informativa de Bienestar Social, todas las resoluciones adoptadas por la misma para su ratificación.

En caso de que el Pleno resuelva no ratificar la autorización provisional concedida por la Comisión de Bienestar Social, el/los usuarios/as deberán de abandonar la vivienda en el plazo de 24 horas a partir de que el/la Trabajador/a Social se lo comunique.

7. artikulua.- Larrialdiko etxebizitzan pertsonaren batek berehala sartzeko premia badu, eta Gizarte Ongizaterako Batzordearen lehendakariak etxebizitzan sartzeko egoki ikusten badu, horretarako behinbehineko baimena eman ahal izango dio. Ondoren, 6. artikuluak ezarritako prozedura hasiko da, eta behin betiko baimena emango zaio.

8. artikulua.- Gizarte Ongizaterako Batzordearen ardura izango da ondoko zeregin hauek betetzea:

• 2. artikuluak jasotako egoeraren batean dagoen pertsonari etxebizitza erabiltzeko eskubidea ematea.

• Larrialdiko etxebizitzan pertsona batek zenbat denbora emango duen erabakitzea, kasua zein den.

• Zerbitzuari onura aterako dionak beste prestazioren bat (diruzein laguntza-prestazioa) jasotzen duen egiaztatzea.

• Kasuan kasu, etxebizitza erabiltzeko modua egokia ote den balioestea.

• Arautegi honek zein larrialdiko etxebizitzarekin lotutako edozerk eragozpen edo zalantzarik eraginez gero aztertu eta konpontzea.

9. artikulua.- Larrialdiko etxebizitza onik zaintzeko funtsak Obra eta Zerbitzuen Batzordeak kudeatuko ditu, Gizarte Ongizaterako Batzordeak hala proposatuta.

ONURADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua.- Etxebizitza erabili ahal izateko, onuradunak nahitaez sinatu beharko du ondoko konpromiso hauek betetzeko agiria:

• Larrialdiko etxebizitzan dirauen bitartean, elkarbizitzako arauak betetzea.

• Arautegi honek jasotzen duen larrialdiko etxebizitzako araudia onartzea, eta bertan jasotako betebeharrak betetzea.

• Larrialdiko etxebizitzara joan behar izatea eragin dion arazoa konpontzeko neurriak hartzea; hau da, administrazio neurriak eta/edo neurri judizialak, hala badagokio.

• Etxebizitzako ondasun eta tresnek osatutako inbentarioa sinatzea, eta behar bezala zaintzea. Gainera, maltzurkeriaz edo zabarkeriaz ondasun eta tresnak hondatuz gero, balio eta kalitate berekoak erosi beharko ditu.

• Udaleko gizarte zerbitzuei jakinaraztea familia unitateak dirusarreretan zein bizitzan izan duen gorabeheraren bat, errenta per capita eguneratzeko.

Horretarako, ordenantza honekin batera doan II. Eranskin izenez ageri den ereduaren araberako konpromiso-agiria sinatuko du.

11. artikulua.

1.- Onuradunek 200 euroko kanona ordaindu behar izango dute hilero, larrialdiko etxebizitza onik zaintzeko.

2.- Gainera, janaria euren lepotik joango da, baita etxebizitzako zerbitzuak (ura, argia…) ere.

12. artikulua.- Larrialdiko etxebizitzaren onuradunek garbitu beharko dituzte etxebizitza, altzariak eta bestelako tresnak, baita eskailera, eurena eta gainontzeko auzokideena, eta atalondoa ere. Salbuespenik balego; hau da, onuradunak ezin badu garbiketa lanik egin, eta hori hala dela Gizarte Ongizaterako Batzordeak egiaztatu badu, udaleko garbiketa zerbitzuek zein etxez etxeko laguntza-zerbitzuek hartuko dute etxebizitza, eskailera eta atalondoa garbitzeko ardura.

13. artikulua.- Onuradunek etxebizitza onik zaindu beharko dute, eurena izango balitz bezala.

Onuradunek etxebizitza behar den bezala ez erabiltzeagatik zerbait hondatu baldin badute, hondatutakoak konpondu edo tresna berriak erosi beharko dituzte.

14. artikulua.- Onuradunak etxebizitza erabiltzeari utzi, eta handik alde egin behar duenean, bertan sartu zenean aurkitu zuen bezala utzi beharko du.

Artículo 7.-En aquellas situaciones en las que se precise el ingreso urgente e inmediato de alguna/as persona/s en el piso de emergencia, el/la Presidente/a de la Comisión de Bienestar Social podrá autorizar provisionalmente la entrada en el piso de la /s persona/s que estimen oportunas. Inmediatamente después, se dará inicio al procedimiento establecido en el artículo 6 para su resolución definitiva.

Artículo 8.-Corresponderá a la Comisión de Bienestar Social las siguientes funciones:

• Otorgar la condición de beneficiario/a a cualquier persona que reúna alguna de las circunstancias recogidas en el art. 2.

• Decidir el tiempo de permanencia de una persona en el piso de emergencia, en función del caso concreto.

• Determinar si la persona beneficiaria del servicio precisa algún tipo de prestación ya sea económica o asistencial.

• Valorar si la utilización del piso en un supuesto concreto es o no correcta.

• Interpretar y resolver cualquier conflicto o duda que pueda surgir en relación con el presente reglamento o con cualquier extremo relacionado con el piso de emergencia.

Artículo 9.-Los fondos destinados al mantenimiento del piso de emergencia serán administrados por la Comisión de Obras y Servicios a propuesta de la Comisión de Bienestar Social.

DERECHOS Y DEBERES DEL/ LA BENEFICIARIO/A

Artículo 10.-Para poder hacer uso del piso será preceptivo que el/la beneficiario/a firme un documento en el que se comprometa a:

• Cumplir las normas de convivencia durante su estancia en el piso de emergencia.

• Aceptar la normativa del piso de emergencia social, recogido en el presente Reglamento y acatar los deberes que se le impongan en virtud del mismo

• Efectuar las oportunas gestiones, administrativas y/o judiciales en su caso encaminadas a solucionar la problemática particular que ha provocado su estancia en el piso de emergencia.

• Firmar un inventario de bienes y objetos que forman parte del equipamiento de la vivienda, y comprometerse a cuidarlo con la diligencia debida, y en su caso a restituir los bienes y objetos que presenten desperfectos causados por actuación dolosa o culposa por otros de igual o similar valor y calidad

• Comunicar a los Servicios sociales municipales, cualquier variación de sus ingresos o circunstancias personales de la unidad familiar, a efectos de actualizar la renta per capita.

A estos efectos suscribirá el correspondiente compromiso según modelo normalizado, que se adjunta como Anexo II a la presente Ordenanza

Artículo 11.

1.- Los/as beneficiarios/as deberán abonar un canon mensual de 200 euros, en concepto de gastos de conservación y mantenimiento del piso de emergencia social.

2.- Asimismo, deberán costear los gastos de su manutención, y los gastos que se ocasionen por los servicios de la vivienda (agua, luz, ...).

Artículo 12.-La limpieza tanto de la vivienda, mobiliario y demás enseres, como de la escalera y portal (como el resto del vecindario), correrán a cargo del/la beneficiario/a o beneficiarios/as ocupantes del piso de emergencia. En supuestos excepcionales, valorados previamente por la Comisión de Bienestar Social, en el que sea patente la imposibilidad de cumplir este deber de limpieza por parte del /la usuario/a, se cubrirá bien con servicios de limpieza municipal, bien con servicios de ayuda domiciliaria.

Artículo 13.-Los/las beneficiarios/as del piso de emergencia deberán hacer un buen uso de ella, cuidándola como si fuera propia.

En el supuesto de encontrar desperfectos en la vivienda ocasionados por la utilización indebida o negligente del/la beneficiario/a del servicio, éste/a estará obligado a asumir los gastos de su reparación o reposición.

Artículo 14.-Al finalizar el uso del servicio, el/la beneficiario/a deberá abandonar el piso en las mismas condiciones de habitabilidad que cuando ingresó.

15. artikulua.- Etxebizitzatik noiznahi irten daitezke bertan bizi direnak.

Edonola ere, larrialdiko etxebizitzaren ardura duen gizarte langileari behar adinako denboraz jakinaraziko diote, etxetik kanpo lo egin behar duten bakoitzean. Baimenik gabe edo inolako arrazoirik gabe norbaitek etxebizitzatik kanpo bost egun baino gehiago ematen baldin baditu, bajan emango zaio.

16. artikulua.- Etxebizitzan ezin izango da animaliarik eduki, ezta higienearen aurkako materialik zein material arriskutsurik ere.

17. artikulua.- Etxebizitzan bizi direnek ezin izango dute bertako giltzen kopiarik egin, ezta giltzak beste batzuei utzi ere.

Larrialdiko etxebizitzan egoteko denbora igaro eta gero, bertan egon direnek etxebizitzaren ardura duen gizarte langileari emango dizkiete giltzak.

18. artikulua.- Larrialdiko etxebizitzan egon direnek dirua edo baliozko objekturen bat galdu baldin badute, udala eta gizarte langilea ez dira inola ere horren erantzule egingo.

19. artikulua.- Etxebizitzan daudenek ezin izango dute bertan ezelango obrarik egin. Instalazioek matxuraren bat izanez gero, gizarte langileari berehala jakinarazi behar izango diote.

20. artikulua.- Udaleko langileak etxebizitzara sartu ahal izango dira, euren lanak hala eskatzen baldin badu.

ETXEBIZITZAN ALDI BATEZ EGOTEKO ESKUBIDEA AMAITZEA

21. artikulua.

1.- Larrialdiko etxebizitzan aldi batez egoteko eskubidea hiru hilabetera amaituko da; eta, salbuespenez eta berariaz, bertan egoteko denbora luzatzen bada, luzatzen den denbora bukatutakoan.

Onuradunak eskatuta ere amaituko da.

22. artikulua.

Etxebizitzan aldi batez egoteko baimena kendu ahal izango da, hiru hilabeteko epearen barruan zein luzatutako denboraren barruan egon arren, baldin eta ondorengo arrazoiren bat badago tartean:

- Onuraduna hiltzea.
- Baimena eman behar izatea eragin zuten arrazoiak dagoeneko ez egotea (besteak beste, etxebizitza eta diru baliabideak lortu dituztelako).
- Arautegi honek ezarritako baldintza zein betekizunak ez betetzea.
- Etxebizitza ezer esan gabe uztea, bost egun baino gehiago kanpoan emateko inolako arrazoirik ez badago.
- Datuak zein dokumentuak faltsutzea edo horien berri ez ematea.
- Larrialdiko etxebizitza zerbitzua kentzea, Aiarako Udalak hala erabaki duelako.

Aiarako Udalbatzaren erabaki bidez ebatziko da, 10 eguneko epean, etxebizitzan aldi batez egoteko baimena kentzea, interesdunari entzun beharrekoak entzun eta gero.

23. artikulua.

1.- Larrialdiko etxebizitzan aldi batez egoteko eskubidea bukatu eta gero, zein bertan egoteko eskubidea kentzea modu formalean adierazi ondoren, edo 6. artikuluaren azken paragrafoak jasotakoa gertatuz gero, interesdunak etxebizitzatik alde egin beharko du, eta hutsik utzi, berak aurkitu zuen modu berean, 24 orduko epean; giltzak gizarte langileari eman beharko dizkio.

2.- Epe hori igaro eta gero, etxebizitza ez badago udalaren esku, bertan daudenak kanpora botako dira. Etxebizitzatik kanpora botatzeko eskumena eta prozedura, eta jendea etxetik botatzea bera administraziozkoak eta sumarioak izango dira.

3.- 1. paragrafoan adierazitako etxebizitza uzteko 24 orduko epea igaro ondoren, interesdunak ez badu etxebizitza hutsik utzi, esango zaio 10 egunean hutsik utzi beharko duela. Hala ere, bertan jarraitzen badu, etxebizitzatik kanpora botako da administrazio bidez, eta alkateak ohartaraziko dio beste 5 egun igaro ondoren etxetik kanpora botako dutela. Etxebizitzatik kanpora botatzeko eguna iristean, udalak berak, alkatearen idatzizko agindu baten bidez, gauzatuko du kanpora botatzeko erabakia.

Artículo 15.- La salida del piso de emergencia es totalmente libre para las personas residentes.

En caso de que tengan que pernoctar fuera del piso de emergencia, deberán comunicarlo con la antelación suficiente a el/la trabajador/a social responsable del mismo. La persona que se ausente más de (cinco) días sin previa autorización o justificación, será dada de baja.

Artículo 16 .-Las personas residentes no podrán tener animales, ni almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos.

Artículo 17 .- Las personas residentes no podrán obtener ni disponer de copias de las llaves del piso, ni dejar su llave a otras personas.

Al finalizar la estancia en el piso, los/las beneficiarios/as del piso de emergencia deberán entregar las llaves a el/la trabajador/a social responsable del mismo.

Artículo 18 .- El Ayuntamiento y el/la trabajador/a social responsable del servicio en ningún caso se responsabilizarán de las pérdidas de dinero u otros objetos de valor depositados por las personas residentes en el piso de emergencia.

Artículo 19.- No se podrá realizar, a iniciativa de las personas residentes, obra alguna en el piso de emergencia. En caso de alguna avería en las instalaciones, deberán dar cuenta inmediata a el/la Trabajador/a social.

Artículo 20.- El personal del Ayuntamiento podrá acceder al piso de emergencia siempre que lo requiera para desempeñar el trabajo encomendado.

EXTINCIÓN DEL DERECHO DE OCUPACIÓN TEMPORAL

Articulo 21.

1.- El derecho a la ocupación temporal del piso de emergencia social cesará, automáticamente, por el transcurso de 3 meses, o en el supuesto de que de de manera excepcional y expresa se haya autorizado su prórroga., por el transcurso del plazo de prórroga.

También cesará automáticamente a petición voluntaria del beneficiario.

Articulo 22.

Podrá acordarse la revocación de la autorización para la ocupación temporal, estando vigente el plazo de 3 meses, o en su caso su prórroga, por alguna de las siguientes causas:

- Por fallecimiento del beneficiario.
- Por desaparición de las causas que motivaron su concesión (disposición de residencia propia, obtención de recursos económicos....).
- Por incumplimiento de cualquiera de los requisitos u obligaciones establecidas en el presente Reglamento.
- Por abandono de la vivienda, sin previo aviso, y sin existir un motivo que justifique la ausencia por un tiempo superior a (cinco) días.
- Por falseamiento de datos, documentos u ocultación de los mismos.
- Por supresión del servicio, previo acuerdo plenario por parte del Ayuntamiento de Ayala.

La revocación de la autorización de ocupación temporal, se resolverá, por acuerdo plenario del Ayuntamiento de Ayala, previa audiencia al interesado, por plazo de 10 días.

Articulo 23.

1.- Una vez extinguido automáticamente el derecho de ocupación temporal del piso de emergencia social, o declarada formalmente la revocación de la autorización de ocupación, así como en el supuesto regulado en el párrafo último del articulo 6, el interesado deberá abandonarlo y dejarlo libre, y en las mismas condiciones en que lo encontró, en el plazo de 24 horas, entregando las llaves al Asistente Social.

2.- Si en ese plazo, el piso no se encontrara a disposición del Ayuntamiento, se procederá al desahucio. La competencia y el procedimiento para disponer el desahucio, y llevar a cabo el lanzamiento, tendrán carácter administrativo, y sumario.

3.- Agotado el plazo de 24 horas señalado en el párrafo 1, para abandonar el piso de emergencia social, sin que se efectuare, se requerirá al interesado, para que en el plazo de 10 días se desaloje Si a pesar del requerimiento, no lo desalojare, se ejecutará el desahucio por vía administrativa, y el Sr. Alcalde, le apercibirá de lanzamiento en el término de otros 5 días. El día fijado para el lanzamiento, la Corporación lo ejecutará por sus propios medios, a cuyo efecto bastará la orden escrita del Sr. Alcalde.

4.- Kaleratuak ordaindu beharko ditu etxebizitzatik botatzeak eragindako gastuak; bestela, ondasunak eman beharko ditu. Udalak egoki iritzitako ondasunak atxikiko ditu, etxebizitzatik botatzeak eragindako gastuak ordaindu ahal izateko, eta premiamendu bidez besterendu ahal izango ditu.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean, behin betiko onartu ondoren.

Aiara, 2007ko maiatzaren 24a.– Alkate-lehendakaria, AINHOA CAMPO ARENAZA.

4.- Los gastos a que dé lugar el lanzamiento o depósito de bienes serán de cuenta del desahuciado. La Corporación retendrá los bienes que considere suficientes para a tender al pago de los gastos de ejecución del desahucio y podrá enajenarlos por el procedimiento de apremio.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor a partir de la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, tras su aprobación definitiva.

En Ayala, a 24 de Mayo de 2007.– La Alcaldesa-Presidenta, AINHOA CAMPO ARENAZA.

## BARRUNDIA

**3749**

**Ordezko bake epaile titularra hautatzeko deialdia**

José Félix Uriarte Uriarte jaunak, Barrundiako alkate-lehendakariak,

JAKINARAZTEN DUT: Ordezko bake epailearen kargua hutsik geratu dela, eta Udalbatzari dagokiola izendatuko den pertsona hautatzea, halaxe agintzen baitute Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. eta 102. artikuluetan eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak 4. eta 5.1 artikuluetan.

Horrela bada, hogeita hamar eguneko epea irekitzen da, interesdunek eskaera egin ahal izateko. Eskaera idatziz egingo da eta Alkatetzara igorriko da. Eskabidearekin batera honako egiaztagiriak aurkeztuko dira: gaitasunaren egiaztagiriak eta Botere Judizialaren Lege Organikoak 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak aurreikusitako kargu judizialen eginkizunetan aritzeko ezintasun eta bateraezintasun egoeraren batean ez dagoela adierazten duen aitorpena.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ozaeta, 2007ko maiatzaren 10a.

## BARRUNDIA

**3749**

**Convocatoria elección Juez de Paz sustituto**

D. José Felix Uriarte Uriarte, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de BARRUNDIA,

HACE SABER: Que habiendo quedado vacante el cargo de Juez de Paz Sustituto, corresponde al Pleno del Ayuntamiento elegir la persona para ser nombrada, de conformidad a lo que disponen los artículos 101 y 102 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y artículo 4 y 5.1 del Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz.

Que se abre un plazo de treinta días naturales para que las personas que estén interesadas, lo soliciten por escrito dirigido a esta Alcaldía. Con la instancia se aportarán los documentos acreditativos de la capacidad y declaración de no estar incursos en alguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad para cargos judiciales previstas en los artículos 102, 302, 303 y 389 de la Ley Orgánica del Poder Judicial con las precisiones contempladas en el Reglamento nº 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz.

Lo que se hace saber para general conocimiento.

En Ozaeta, a 10 de mayo de 2007.

## BURGELU

**3908**

**Ordezko arauen 3. xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea.**

2007ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion Burgeluko Udal Planeamenduaren Ordezko Arauen 3. xedapen-aldaketari. Aldaketa hori Burgeluko Udalak sustatu eta Luis Murua arkitekto jaunak idatzi zuen. Beraz, jendaurrean jarriko da berrogeita bost egunez, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan udal idazkaritzan aztertu ahal izango dute interesdunek eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu.

Burgelu, 2007ko maiatzaren 24a.– Alkatea, NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN.

## ELBURGO

**3908**

**Aprobación inicial modificación puntual número 3 de las Normas Subsidiarias.**

Aprobada inicialmente, en sesión celebrada el día 23 de mayo de 2007, la Modificación Puntual número 3 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de Elburgo, tramitada a iniciativa del Ayuntamiento de Elburgo, y redactada por el Arquitecto D. Luis Murua, se somete a información pública por el plazo de cuarenta y cinco días naturales contado a partir del día siguiente al de la inserción del presente anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, durante el cual, podrá ser examinado su expediente en la Secretaría Municipal para formular las alegaciones que se estimen pertinentes.

En Elburgo, a 24 de mayo de 2007.– La Alcaldesa, NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN.

## ELCIEGO

**3920**

**Ikastetxeko teilatua berritzeko lehiaketa**

Udal honek, 2007ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, obra hauek esleitzeko lehiaketaren baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onartu zuen: “Elciegoko ikastetxe publikoaren teilatua berritzea”. Agiri hori zortzi egun egongo da jendaurrean, ediktu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Halaber, lehiaketa iragartzen da. Dena dela, baldintzen agiriaren aurkako erreklamaziorik aurkezten bada, lizitazioa atzeratu egingo da.

## ELCIEGO

**3920**

**Concurso reforma del tejado escuelas**

Aprobado por el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 25 de Mayo de dos mil siete, el Pliego de cláusulas económico-administrativas que han de regir la contratación por concurso de la obra “Reforma de cubierta en colegio público de Elciego”, se expone al público durante el plazo de ocho días contados a partir del siguiente hábil al de publicación del presente Edicto en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava para que puedan presentarse las reclamaciones que se estimaren procedentes.

Simultáneamente se anuncia el concurso, si bien la licitación se aplazará cuanto resulte necesario en el supuesto de que se formulen reclamaciones contra el Pliego de condiciones.